

Euskararen ahoskera hizkera-maila ezberdinetan: aldagarritasuna aztertzen

**Pronunciación del euskera en diferentes registros
del habla: analizando la variabilidad**

**Prononciation de la langue basque dans différents
registres : analyse de la variabilité**

**Pronunciation of the Basque language in different
registers: analysing the variation**

URRETA, Irati
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
irati.urreta@ehu.eus

Noiz jaso: 2020-12-22
Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 625-657. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan, euskararen ahoskera eta hizkera-mailak dira aztergai. Hain zuzen ere, Alegiako (Gipuzkoa) sei hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko jardunak oinarri hartuta, euskararen ahoskerak hizkera-mailaren arabera izan dezakeen aldagarritasuna aztertu da, hizkera-mailaren arabera, ahoskera aldatzen den edo ez jakiteko helburuarekin. Bestalde, Euskaltzaindiak 1998an aurkeztutako “Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua” proposamenarekin hiztunek duten harremana nolakoa den agerian jartzea da asmoa.

Gako-hitzak: ahoskera, hizkera-mailak, aldagarritasuna, estandarizazioa, pertzepzioak eta jarrerak, prosodia.

En este artículo se analiza la pronunciación del euskera y sus registros de habla. Concretamente, se analizan varias producciones orales, informales y formales, de seis hablantes de Alegia (Gipuzkoa), con el fin de saber si la pronunciación varía en base al tipo de registro de habla. Por otro lado, se examina la relación de los hablantes con las normas para la “Pronunciación Reglada del Euskera Unificado”, propuestas por La Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) en 1998.

Palabras clave: pronunciación, registros de habla, variación, estandarización, percepciones y actitudes, prosodia.

Dans cet article, on analyse la prononciation et les différents registres du basque. Concrètement, sur la base des registres oraux, formels et informels de six locuteurs de Alegia (Guipuzcoa), on analyse la variabilité de la prononciation du basque par rapport au registre utilisé par le locuteur, afin de voir si cette prononciation change en fonction du registre verbal. D’autre part, l’objectif de cette étude est aussi de montrer quel rapport entretiennent les locuteurs avec la proposition “Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua” émise par Euskaltzaindia en 1998.

Mots-clés : prononciation, registres verbaux, variabilité, standardisation, perceptions et attitudes, prosodie.

This article aims to analyse the pronunciation of the Basque language and its registers. In particular, we analyse some informal and formal oral productions of six speakers from Alegia (Gipuzkoa), in order to know if the pronunciation varies depending on the type of register. Furthermore, we examine the relationship of the speakers with the rules for “Careful Pronunciation of Standard Basque”, proposed by the Royal Academy of the Basque Language (Euskaltzaindia) in 1998.

Keywords: pronunciation, registers, variation, standardisation, perceptions and attitudes, prosody.

1. Sarrera¹

Ahozkoan aldagarritasun handia dago, idatzian baino handiagoa (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 47). Denboraren eta lekuaren ardatzean gertatzen da aldagarritasun hori, hizkuntzak denboran zehar aldatu egiten baitira eta lekuaren arabera ere hizkera ezberdinak topatzen baititugu (Sapir 1949 [1921]: 147-148). Hitzunak banaka hartuta ere antzeman daiteke aldagarritasuna, ez baitu inork ondokoak bezala hitz egiten eta norberaren hizketa ere ez baita beti berdina. Aldatu egin ohi da maiz solaskidearen arabera, gaiaren arabera eta abar (Montgomery 2008: 90).

Hizkuntza osasuntsu batek berez (hiztunek eurek, bestelako esku hartzerik gabe) gara dezake aldagarritasun funtzionala; hau da, hiztunek hizkera ezberdinak erabiltzen dituzte egiteko (funtzio) ezberdinetarako (Milroy 1994: 21). Euskara hizkuntza gutxitua izanik, ordea, ez da hori gertatu. Euskara, oro har, eremu jakin batzuetan baino ez da erabili; adibidez, etxeko erabilerara mugatua izan da askotan. Hizkera-maila jasoago edo formailagoetarako estiloric ere ez da garatu denbora-tarte luzean, beste hizkuntza batzuek (gaztelaniak eta frantsesak azkenaldian) bete baitituzte euskararen barnean estandarri legezkiokkeen esparruak (Oñederra eta beste 2015: 507). Honela, hizkuntzak historian zehar izan ez duen aldagarritasuna, hein batean, berariaz antolatatu behar izan da euskararen kasuan; euskara batuak “lagundu” du horretan.

Ahoskeraren kasuan, ordea, berandu etorri zen honen arautzea (idatzia-rena berarena baino beranduago esan nahi da), 1968an euskara batu idatzirako oinarriak finkatu zirenetik 1998ra arte ez baitzen ahozkorako ezer proposatu. Azken urte horretan atera zuen Euskaltzaindiak *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* (EBAZ hemendik aurrera), zeina ahozko hizkera estandarretarako hitzun guztien erreferentzia tresna litzatekeen, hizkuntzaren mai-

¹ Nire eskerrik beroenak Miren Lourdes Oñederra eta Oroitz Jauregiri egindako ohar eta proposamenengatik. Eskerrak, noski, euren jardunak grabatzeko prest agertu diren hiztunei ere, eurek osatu baitute lan honen oinarri izan den corpusa; ia esan gabe doa corpusik gabe ez zela ondorengo guztia aurrera eramaterik izango. Azkenik esan nahi dut, lan honek Eusko Jaurlaritzaren Doktorego Aurreko Programako laguntza (2020-2021) jaso duela.

la zainduetan erabiltzekoa (Euskaltzaindia 1998: 485). Hala ere, badirudi, batetik, maiz ahoskera bere horretan uzten dela eta, horrela, hizkera-maila zainduko jardunetan ere, norberaren euskalkiko ezaugarriak betetzeko joera izan ohi dela; ahoskera horietako batzuek hizkera-maila arduragabeko ezaugarriak izan ohi dituzte. Bestetik, berriz, batzuetan beste muturreko joera nagusitu ohi da, “ezer ez egitekoa”, hau da, idatzi bezala irakurtzekoa (Oñederra 1994: 1590). Hitz egiten ari garenean ez gara ari beti irakurtzen, noski, baina hizkera zaindurako eredia irakurritik sortua izan daiteke maiz, irakurtzea eskatzen duten egoerak izan ohi baitira askotan hizkera zaindua erabiltzea errazten dutenak (4.1. atala).

Lan honetan, bada, Alegiako (Gipuzkoa) zenbait hiztunen jardunak oinarri hartuta, hizkera-maila arduragabeko eta zainduko zenbait ahoskera aztertuko ditugu, hizkera-mailaren arabera ahoskera aldatzen den edo ez jakiteko asmoz. Datuen analisisa egiteko Fonologia Naturalaren teoria hartuko dugu oinarritzat. Teoria esplikatzaile honetan hotsen arteko bi dinamika mota (*fortitio* edo indartze bilakabideak / *lenitio* edo ahultze bilakabideak) bereizten dira eta horien banaketarako hizkera-mailak definitzaile dira (Donegan; Stampe 1979: 142-143); hortik teoria horrek interes berezia izatea lan honetarako.

Analisisa osatzeko, kontuan izango dugu hiztunen alderdi psikologikoa. Hiztunek ahoskera jakin batzuen inguruan dituzten pertzepzio edo jarrerak aztertuko ditugu. Bereziki, hiztunek EBAZ arau edo proposamenekin duten harremana nolakoa den agerian jartzen saiatuko gara, zenbait ahoskera erabiltzearen edo ez erabiltzearen arrazoiaren zati bat hiztunek ahoskera horien inguruan dituzten hautemate edo usteetan aurki baitaiteke (Cestero; Paredes 2018: 13).

2. Estandarizazioa eta ahoskera

2.1. Idatziaren lehentasuna

Ferguson-en (1996: 189) hitzetan, estandarizazioa hizkuntza batzeko bidea litzateke. Hizkuntzak berezkoa duen banatzeko edo bereizteko (dialek-

toetan, adibidez) joeraren aurrean, estandarizazioak (gutxieneko) uniformetasuna eta batasuna dakartza. Estandarizazio prozesuaren bidez aldaera estandarra eratzen da; eremu zabal baten (hiztun elkargo baten) hizkera komuna litzateke aldaera hori, eskolan irakasten dena eta eremu publikoetan erabiltzekoa, bereziki idatzirako eta testuinguru formaletarako eratu (Auer 2005: 8).

Badirudi idatzia izan ohi dela aldaera estandarren lehentasun, maiz ahozkoa egintzat ematen baita (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 55). Ahoskeraren estandarizazioa (etortzekotan ere) idatziarena baino geroago etorri ohi da, oro har. Idatziak izan ohi duen lehentasunaren erakusle da, esaterako, hainbat hizkuntzaren estandarizazio prozesuetan, lehendabiziko urratsa ortografia kontuak lantzea eta kodetzea izan dela, honen ondoren gramatika eta lexikoa landu izan dira, idatziak “indarra” duen alderdiak hartu dira lehendabizi kontuan, beraz. Azkenik, egin denetan, ahoskerari jarri zaio arreta.

Adierazi berri dugunaren erakusle argia da, esaterako, katalanaren kasua. Katalanaren kodetze prozesua XX. mende hasieran hasi zen Pompeu Fabra-ren erreforma ortografiko eta gramatikalarekin (González 2002: 13) eta, hainbat urtetako lanaren ondoren, ortografiaren (1913), gramatikaren (1918) eta lexikoaren (1932) estandarizazioan urrats esanguratsuak ematea lortu da. Idatzi estandarra nahiko garatua dago eta onartua da hiztunen artean (Valverdú 1986: 317). Ahozkoan, ordea, estandarizatorako urratsak geroago etorri ziren. 1986an, jada idatzi estandarra nahiko aurreratua zegoen garaian, egoera nahasiagoa zen ahozkoaren kasuan, gauzak ez zeuden idatzian bezain landuak eta zehaztuak: «Aquí la situación es más compleja, hasta el punto de que los sociolingüistas catalanes aún estamos discutiendo sobre si existe o no un estándar oral en catalán» (Valverdú 1986: 320). Garai hartatik denbora-tarte luze samarra igaro den arren, egungo mendean oraindik, ahozko estandarren lanketak katalan estandarren erronketa-ko bat izaten jarraitzen du (González 2002: 13).

Aldaera estandarren hedapen edo transmisio lana egiten duen bide nagusietako bat, hedabideekin batera, irakaskuntza izan ohi da, bestek beste (Demonte 2003). Alor horretan ere ahoskera idatziaren lehentasunaren atzean kokatu ohi da oro har (Harmer 2007, Purhosein 2016). Ahoske-

ra ez da agertu ohi irakasleen prestakuntza curriculumean, ezta ebaluazioan ere (Risan 2014: 11). Ikasmaterialetan (testuliburuetan, esaterako) eskaintzen zaion lekua ere txikia izan ohi da, gramatikari eskaintzen zaionarekin alderatuta, adibidez (Cortés Moreno 2002: 69).

Ahoskera kontuak bereziki irristakor eta harrapagaitzak izan ohi dira, ez dira “erosoak” izaten (Oñederra 2019). Ahozkoan topatzen den aldagarritasun handiak (idatzian baino handiagoa) eragiten du, hein batean, harrapagaitzasun edo kontrolatzeko ezintasun hori (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 47). Perez eta Azkaratek (2020: 612) diote aldagarritasuna behar dela aldaera estandarrean, idatzian eta, batez ere, ahozkoan. Ahozkoan dagoen aldagarritasun handia eta estandarizazioak ekarri ohi duen (gutxieneko) uniformetasuna kontuan hartuta, ahozkoa ezingo litzateke guztiz estandarizatu, aldagarritasunik gabeko ahozko aldaerarik ezingo litzateke eratu, alegia: «absolute standardisation of a spoken language is never achieved (the only fully standardised language is a dead language)» (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 19).

2.2. Euskara batua eta ahoskera

Euskararen kasuan ere ahozkorako proposamenak idatzirakoak baino geroago etorri ziren. Euskara batu bat eratzeko zenbait urrats eman ondoren, 1968an euskara batuaren oinarriak finkatu ziren; idatzirako ezarri ziren oinarri horiek.² Mitxelena 1968ko Arantzazuko batzarrean aurkeztu zuen txostenean bertan adierazi zuen idatziak izango zuela lehentasuna estandarizazioaren lehen garaietan: «Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da» (Mitxelena 1968: 203).

Dena den, euskara batua, hasiera batean, idatzirako proposatu bazen ere, gizarte modernoko eskakizunek ahozkoak lekua duen esparruetara eraman

² Lanaren luzera eta helburuak gaindituko genituzkeenez, ez ditugu euskara batuaren hastapen eta eraketako nondik norakoak ekarri. Horien berri jakin nahi izanez gero, ikus, besteren artean, Zuazo (2005) eta Hualde eta Zuazo (2007).

zuten eredu batua, irratira eta telebistara, esate baterako (Larrinaga 1998: 459). Horrek ekarri zuen, besteak beste, ahoskera estandarizatzeko beharra eta, honela, estandarren ahoskerak nolakoa izan behar zuen aztertzen hasi zen Euskaltzaindia 1993an. Zenbait urtetako lanaren ondoren, 1998an EBAZ argitaratu zen, zeina, sarreran adierazi bezala, ahozko hizkera estandarerako erreferentzia tresna litzatekeen (Euskaltzaindia 1998: 485). Tartean eten bat izan arren, egun ere Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak lanean dihardu (Oñederra 2016, 2017).

3. EBAZ arau edo proposamenak

Esan bezala, Euskaltzaindiak 1998an aurkeztu zuen EBAZ. Estandarizazio prozesuak aldaeren gutxieneko murriztea dakarren arren (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 19), arau edo proposamen hauen helburua ez da euskararen aldaera bat lehenestea besteak baztertze. EBAZ ez da gainerako hizkeren ordeko, osagarri baizik; izan ere, hizkuntza oso eta normal bat izateko, ahoskera estandarrak eta gainerako mailetako ahoskerek elkarren osagarri izan behar lukete (Jauregi; Epelde 2019). Helburua da euskarari baliabideak ematea hizkera zaindua, jaso eskatzen duten egoeretarako (Euskaltzaindia 1998: 485).

3.1. EBAZ arau edo proposamenen malgutasuna

EBAZ arau edo proposamenak aurkezterakoan, estandarrak malgua izan behar duela azpimarratu zen. Ez da proposatzen ahoskera bakarra euskalki guztietako hitunentzat, aukera bat baino gehiago hobesten baitira zenbaitetan. EBAZen bidez aldaera estandarra erabili behar denerako norabidea markatzen da, «gutxieneko gida bat» (Oñederra eta beste 2015: 511) eskaintzen da. Malgutasuna hizkuntzaren aldagarritasunarekin dago lotua, aldagarritasuna kontuan hartzeko faktorea baita estandarizazio prozesuan:

No hay que olvidar en ningún momento que las lenguas son, por definición, variables y que, por tanto, cuando se deciden los modelos hay que sopesar previamente los factores de variación (geográficos, sociales y esti-

listicos) y decidir de qué manera deben ser considerados en dicha operación de estandarización. (Poch-Olivé 1998: 397)

Lanaren hasieran esan bezala, ahozkoan aldagarritasun handia dago. Hori dela eta, Milroy eta Milroyren (1999 [1985]: 19) esanetan, ahozkoan ezin du inork erabat erabili estandarra, norma hila baita (erreferentzia den heinean, finkoa), eta hizketa bizia (aldakorra). Hortaz, ahozko estandarrak (pluralean) bat baino gehiago izango dira; hau da, nolabait esan, euskalkien koloreak izango ditu ahoskera horrek (Oñederra eta beste 2015: 503). Hori litzateke behintzat helburua, nahiz eta ez genukeen ahaztu behar erdaren kolorea, euren biografia linguistikoaren arabera gehiago edo gutxiago, dagoeneko aski zabaldua dagoela zenbait euskal hiztunen ahoskeran. Prosodiari dagokionez (3.2. atala), esaterako, adierazgarria da erdal eredu in-darra, prosodia berri bat nagusitzerainokoa zenbaitetan (ikus Oñederra 1998, prosodia berri horren ezaugarrietarako). <zd> bilkuraren ahoskeraz aritzerakoan (5.3.2. atala) ikusiko dugu bokal eta kontsonanteen ahoskeran ere erdaren kolorea (gatzelaniarena, kasu honetan) zabaldua dagoela euskal hiztunen artean.

EBAZ arau edo proposamenetan nabarmentzen den aniztasun eta malgutasunaren bidez ahoskera zaindua hiztunarentzat onargarriago edo benetakoago izatea bilatzen da. Ohikoa da hiztunak artifizialtasun sentipena izatea ohituta ez dagoen formak erabiltzerakoan (Oñederra eta beste 2015: 517). Aukera bat baino gehiago onartuz gero, sentipen hori, zenbaitetan, leundu daiteke, hiztunak hurbilago geratzen zaion ahoskera (ahoskatzen ohitua dagoena) erabiltzeko aukera handiagoa izango baitu. Esate baterako, EBAZen aukera bat baino gehiago onartzen dira <in, il> bilkuren ahoskeraren kasuan; bustidura gertatzen den hiztunengan (*i[ʌ]e*) bustidura hori ahoskera zainduan ere egoki dela adierazten da eta bustidura gertatzen ez den euskalkietako hiztunengan (*i[l]e*), berriz, bustidurarik gabea izango dela ahoskera zaindua esaten da (Euskaltzaindia 1998: 489).

Aipatu dugu hiztunak maiz artifizialtasun sentipena izan ohi duela ohituta ez dagoen formak (ahoskerak) erabiltzerakoan. Sentipen horrek baztuetan aldaera estandarerako hobesten diren formak ez erabiltzea edo baztertzea ekarri ohi du (Darquennes 2011: 555). Badirudi, beraz, alderdi

emozionalak edo psikologikoak eragina duela hitzunek erakusten duten estandarren erabileran. Woolhiser-ek (2011: 506) alderdi subjektiboen garrantzia azpimarratzen du, non jarrerak, ideologia eta identitatea aipatzen dituen, besteak beste. Alderdi hauek guztiek eragina lukete Haugen-ek (1966: 933) *acceptance by the community* ('hiztun elkargoaren onarpena') izenez azaltzen duen estandarizazio prozesuaren urratsean; hau da, alderdi subjektiboez eragina dute hitzunek aldaera estandarretako zehaztutako formak onartu eta erabiltzean.

Lan honetako hitzunen datuak aztertzerakoan ikusiko dugu hitzunei zenbait ahoskera (5.3.1. atalean aztertuko dugun <j> letraren ahoskera sabaiakaria, gure kasuan) ez zaizkiela natural egiten, batzuetan lotsa ere ematen omen die ohituta ez dauden ahoskerak erabiltzeak. Honela, maiz jakin arren maila zainduetarako hobesten den ahoskera erabili ohi ez dutena dela, lotsak eraginda, ez dute erabiltzen, erabili ohi duten ahoskeraren alde egiten dute maila zainduetan ere.

Azken batean, beraz, artifizialtasun sentipena ohiturarik ezak sortzen du. Era berean, pentsa liteke erabilerak eta denborak leunduko dutela sentipen hori. Hizkera zainduko ahoskerak erabiltzera ohitu ahala, arrotasun sentipena desagertzen joango da, aldaera estandarren onartze prozesuan denbora eta ahalegina aldagai esanguratsuak baitira (Haugen 1966: 933).

3.2. EBAZ arau edo proposamenak eta prosodia

Prosodia hizkuntzaren musika litzateke; azentu-egiturak, erritmo- eta doinu-ereduak eta, oro har, kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia da (Oñederra 1998: 440). Donegan eta Stampe-ren (1979: 142) esanetan, ahoskeraren eragile garrantzitsuena da prosodia; izan ere, gertakizun segmentalen eremu izateaz gain, bokal eta kontsonanteen ahoskeraren eragile ere bada maiz. Hizketaren ezinbesteko osagaia da, ez baitago prosodiarik gabeko hizketarik; hitz egitean bokal eta kontsonante kateak prosodian (musika-ereduetan) txertatzen ditugu.

EBAZ arauak segmentalak dira; hau da, kontsonante eta bokalen ahoskerarako proposatzen dira. Prosodia ere kontuan hartzen da, ordea. Euska-

raren prosodia edo, hobeto esanda, euskararen prosodiak aintzat hartzen dira eta, horiek errespetatze aldera, ez da azentu eredu bat proposatzen (Oñederra 1998: 449). Aniztasuna nabari da prosodian hiztunen artean; esate baterako, aniztasuna dugu, azentuari dagokionez, euskal hizkeren artean (Mitxelena 1972 eta 1990 [1961], Txillardeggi 1984, Hualde 1995). Honela, bokal eta kontsonanteen ahoskeraren kasuan bezala, prosodia ere askotarikoa izatearen alde egiten da; hau da, hiztunak, hizkera zaindua erabili behar duenean (ere), esaldiak bere hizkerako prosodian txertatzea proposatzen da (Oñederra 2016: 136-138).

4. Hizkera-mailak

Eskénazi-ren (1993: 502) esanetan, hizkera-mailek hiztunaren eta inguruaren arteko elkar eragina islatzen dute:

Style reflects the action of the environment upon the individual and the individual upon the environment. It is his perception of the various "status" levels of his listener and of the type of situation in which he finds himself. It is also a projection of himself, his background, and is a setting of the type and tone of conversation he wishes to have. (Eskénazi 1993: 502)

Hizkera-mailaren izaera edo nolakotasuna hainbat alderdiren araberakoa da; besteak beste, komunikatu nahi den edukiak edo hiztunak hartzailearekin duen harremanak (bien arteko ezagutza maila, adibidez) baldintzatuko dute jarduna gertatzen deneko egoera eta, beraz, hizkera-maila nolakoa den.

Hizkera-mailak zenbakaitzak direla esan daiteke, ez baita muga zurrunik topatzen bataren eta ondorengoaren artean (Oñederra 1994: 1592). Hala ere, badira hizkera-mailen sailkapenak proposatu dituzten lanak. Hor daude, esaterako, Joos-en (1968) proposamena eta Labov-ena (1972). Lan honetan, ordea, ez gara hizkera-mailen sailkapen horien eztabaidan sartu. Gutxieneko sailkapen bat egitearren, Mitxelenagandik datozkigun terminoei (*zaindu*, *arduragabe*) jarraituta, hizkera-maila zaindua eta arduragabea bereizi ditugu. Dena den, honek ez du esan nahi bi maila banandu eta be-

reizi daudenik, bien tartean maila eta aldaera ugari baileudeke, goraxeago aipatu bezala, zenbatzen zail (ezinezko, agian) direnak. Zaindua eta arduragabea etenik gabeko *continuum* baten bi ertzak lirateke (Oñederra eta beste 2015: 525).

4.1. Hizkera-maila arduragabea eta zaindua: *continuum* bat

Aurreko lerroetan aurreratu bezala, Mitxelenari zor zaio *zaindu* terminoa. Hizkera formal edo jasoari legokiokeena litzateke ahoskera zaindua, hizkera horretan hitzunak arreta jartzen duelako (beti bezala) edukian ez ezik, eduki hori adierazteko forma fonetikoan (ahoskeran) ere (Oñederra eta beste 2015: 506). Jendearen aurrean irakurtzeak eskaintzen du hizkera zaindua erabiltzeko aukera egokienetakoa (Durand 2014: 253). Irakurtzean ahoskerari arreta handiagoa jarri ohi zaio, askotan entzulea urruti egon ohi da (irratiko jardunean, adibidez) eta kontu handiagoz ahoskatu ohi da, mezua uler dadin. Esate baterako, bati baino gehiagori gertatu izango zaio, ziurrenik, eskolan irakasleak gainerako ikaskideen aurrean ozen irakurtzeko eskatu, irakurtzen amaitu eta ez jakitea oso ondo zer irakurri duen, zein den gaia, edukian baino arreta handiagoa jarri duelako eduki hori adierazteko forman. Horrelako egoeretan “seinalea” sendoa izan dadin ahalegin berezia egiten da, eta horretan ahoskerak leku esanguratsua betetzen du. Prosodiari dagokionez, esaterako, erritmoa eta ahotsaren indarra zaintzen dira (Listerri 1992: 16).

Hizkera-maila zainduak izan ohi dira estandarra erabiltzea eskatzen dutenak, entzuleria handiagoa eta nahasiagoa (ezezaguna, hizkera ezberdinetako jendea, etab.) izan ohi baita (Milroy; Milroy 1999 [1985]: 54). Hizkera-maila arduragabeak araupetzeak ez luke zentzurik, horrelakoak hitzunek erreferentziatzat (eurek “zehazten” dute) hartzen duten arau edo normatik eratorriak izaten baitira; hau da, hizketa arduragabearen ahoskera ez da “ikasia” izaten (nahita eta jakinaren gainean ikasia esan nahi da), bat-batekoa eta oharkabea baizik (ikus, besteren artean, Laboven (1972) eta Listerriren (1992) *spontaneous speech* delakoa).

Hizkera-maila arduragabeetan hitzuna mezura, edukira begira egon ohi da eta ez da ahoskeraz, formaz, berariaz arduratzen; ez dio arretarik jar-

tzen, alegia. Horrelako egoerak sortzen dira, esaterako, herriko tabernan lagunen artean eta etxekoen artean. Bat-batekotasuna, bizitasuna eta adierazgarritasuna izan ohi dira, besteak beste, maila honetako hizkeraren ezaugarriak (Oñederra 1994: 1593). Egoera horietan, gorago esan bezala, hiztunak arreta guztia mezuan, esaten ari denean jartzen du eta oharkabean ahoskera arduragabearen fenomenoak ateratzen zaizkio. Hotsen ekoizpena errazten duten bilakabideak (*lenitioak*) izaten dira, oro har, nagusi (Donegan; Stampe 1979: 142-143); esate baterako, kenketak gertatzen dira maiz, bokalarteko ttakaren kenketa ($a[r]i > ai$) da horren erakusle (5.3.2. atala).

4.2. Hizkera-mailak eta EBAZ arau edo proposamenak

EBAZ arau edo proposamenak hizkera-maila zainduetarako proposatzen direla kontuan izanik, zenbat eta gehiago urrundu erabilera formale-netatik, orduan eta gutxiago bete beharko lirateke proposamen horiek. Aldiz, zenbat eta gehiago gerturatu egoera zainduetara, orduan eta estuago betetzea arauak proposatzen da. Egoera zenbat eta zainduago, orduan eta EBAZetik gertuago; aldiz, egoera zenbat eta arduragabeago, orduan eta EBAZetik urrunago. Adibidez: «herrikoentzat emandako hitzaldi bategen ez ditu, nahitaez, euskaldun guztientzako Lehendakariarenak bete behar lituzkeen adina ezaugarri hartu behar EBAZetik» (Oñederra eta beste 2015: 526).³ Alderdi askok dute zeresana EBAZ arau edo proposamenak erabiltzerakoan: gaiak, hartzailearekin partekatzen den ezagutza mailak, hizketa gertatzen deneko lekuak, jarduna irakurria izateak edo ez, etab. (Oñederra 2019).

³ Hizketari jarri ohi zaion arretak garrantzia du hizkera-mailak zehazterakoan (Labov 1972: 99). Azaldu dugun bezala, hizkera-maila zainduetan, edukiari ez ezik, formari (ahoskerari) ere arreta jarri ohi zaio. Maila arduragabeetan, aldiz, hiztuna mezura begira dago, ez da ahoskeraz "kezkatzen". Ahoskerari jartzen zaion arreta graduala da, eta honek eragiten du, besteak beste, hizkera-maila zainduaren eta arduragabearen barnean ere mailak egotea; hau da, maila zaindu batzuk beste batzuk baino zainduagoak izatea eta arduragabe batzuk beste batzuk baino arduragabeagoak izatea.

Sarreran adierazi bezala, euskara hizkuntza gutxitua izanik, ez da erabili esparru askotan (zainduetan, estandarrak lekua duenetan), ez du izan hizkera formalik (beharrik ez duelako izan) eta horrek hizkera-mailen arteko egiturarik ez izatea ekarri du. Hizkuntza osasuntsu edo indartsuetan hizkera-mailen artean antolaketa jakin bat izan ohi da, eta egitura mailakatu hori hitzunik euren, bestelako “laguntzarik” gabe, eratzten dute (Milroy 1994: 21). Euskararen kasuan, ordea, historian zehar izan ez den aldagarritasuna berariaz antolatu beharrekoa da, hasiera batean behintzat, gero bere kabuz (kanpoko antolaketaren beharrik gabe) egingo du hizkuntzak, hizkera-mailen araberako aldagarritasunari dagokionez, bere bidea. Testuinguru horretan ulertu behar da EBAZ arau edo proposamenen malgutasuna (ikus Oñederra 2004 laneko “fonoestilistika eta euskara” atala).

5. Corpusaren lanketa

5.1. Parte hartzaileak

Sei hitzunik osatu dute laneko corpusa eta guztiak Alegiakoak (Gipuzkoa), jatorrizko euskal hitzunik (euskaldun zaharrak) eta euskara-gaztelania elebidun goiztiarrak izan dira. Hitzun guztiak euskara-gaztelania elebidun goiztiarrak direla diogunean, bi hizkuntzak nerabearoa baino lehen bereganatu dituztela esan nahi da. Nerabearoa muga esanguratsua da ahoskerari dagokionez, hitzuna hizkuntzaren sistema fonologikoaz arazorik gabe jabetu ahal izateko (Donegan; Stampe 1979: 126-127) eta, hortaz, nerabearoa hartu dugu erreferentziatzat elebitasun goiztiarraren kontzeptua zehazteko.

Aipatu ditugun ezaugarri komun horiek izan arren, zenbait alderdi edo ezaugarri bereizgarri ere badira euren artean. Horien artean nabarmenena adina da. Adin edo belaunaldi ezberdinetako hitzunen artean zenbait ahoskeratan ezberdintasunik badagoen edo ez aztertzeko bidea zabaldu nahi izan da; horregatik, parte hartzaileak hautatzerakoan kontuan izan da euren adina:

1. taula. Grabazioak egin zirenean hiztunek zuten adina

Hiztunak ⁴	Adina
IU	14
LL	14
MB	20
OB	21
MLE	47
AO	61

Adinaz gain, badira kontuan hartzeko beste alderdi batzuk, hiztunen ahoskeren artean egon daitekeen aldagarritasuna, neurri handiagoan edo txikiagoan, ulertzeko gako izan daitezkeelako zenbaitetan. Batetik, IU-k eta LL-k Alegiako eskolan ikasten dute eta MB eta OB Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB-n) ari dira humanitate ikasketak egiten. Beraz, laurak ikasleak dira (D ereduan ikasi dute guztiek) eta, etxeko hizkuntza ereduaz gain, eskolakoa ere jasotzen dute. Gainera, MB eta OB, ikasketak direla eta, Bartzelonan bizi dira eta gaztelaniarekin nahiko harreman estua dute. Bestetik, MLE 7 urtetan Tolosan aritu da administrari lanetan, jendaurreko lana egin du. Azkenik, AO urte askoan matematikako irakasle izan da Tolosaldean, 6-8 urte B ereduan eta 37 urte D ereduan. Irakaskuntzan aritu izanak euskara batuarekin eta, oro har, hizkera-maila zainduarekin harreman estua izatea ekar dezake, eta horrek, beharbada, hiztunaren ahoskeran eragina izan dezake.

5.2. Datu bilketa

Hizkera-maila arduragabeen eta zainduan zenbait hiztunek erabili ohi duten ahoskera nolakoa den aztertzeko eta hizkera-maila horietako ahoskerak alderatu ahal izateko, sei hiztunen bina jardun bildu dira.

⁴ Parte hartzaileak izendatzeko, euren izenaren eta lehen abizenaren lehen letrak erabili dira: IU, LL, MB, OB, MLE, AO; gazteenetik zaharrenera antolatua, hurrenez hurren.

Batetik, hizkera-maila arduragabeko jardunak jaso dira, non eguneroko gauza edo zereginei buruzko elkarrizketa bana egin zaien hiztunei, egoera ahalik eta informalena izateko helburuarekin. Llisterriren (1992: 3) lanean aipatzen den “hizketa espontaneo” (edo ahalik eta espontaneoena, behintzat) biltzea izan da helburua. Dena den, ez da ohiko lagunarteko solasa izan, ikertzaileak, oro har, galderak bakarrik egin baititu eta parte hartzaileek horiek erantzun baitituzte, horregatik esaten da elkarrizketak izan direla, ez solasak. Grabazioak gabon garaian eginak izanik, bereziki, gabonekin lotutako galderak egin zaizkie. Batez beste, hamar minutuko elkarrizketak izan dira.

Bestetik, maila zainduko jardunak bildu ahal izateko, egoera bat eman zaie irudikatzeko. Jendearen aurrean irakurtzeak, neurri batean behintzat, hizkera zaindua erabiltzea errazten duela kontuan izanik (ikus 4.1. atala), balizko ETB1eko dokumental baterako testu bat ozen irakurtzeko eskatu zaie.⁵ Gutxi gorabehera, bost minutu iraun dute irakurketek.

Honez gain, bi hizkera-mailetako jardunak bildu ondoren, bost eta hamar minutu bitartean iraun duen galdetegi bat egin zaie, non, bereziki, testua irakurtzerakoan erakutsi dituzten zenbait ahoskeraren eta EBAZ arau edo proposamenen inguruko pertzepzioez edo usteez galdetu zaien. Galdetegi hau, batez ere, hiztunek EBAZ arau edo proposamenen inguruan eta, oro har, zenbait ahoskeraren inguruan dituzten hautemate edo jarren berri izateko asmoarekin egin da, baita bi hizkera-mailetako ahoskeren erkaketa osatzeko balio dezakeelakoan ere. Ariketa edo jardun hau ere grabatu egin da.

Grabazioak 2018ko abendu amaieran eta 2019ko urtarril hasieran egin ziren, arratsaldez, hiztunen euren etxeetan. LL eta AO hiztunen kasuan, berriz, egilearen etxean egin ziren. Grabazioak .wav formatuan egin ziren

⁵ Esan zaie ETB1ek osasunari eta elikadurari buruzko dokumental bat antolatu duela, osasuntsu jatea garestia den ala ez den eztabaida nagusia duena eta, eurak nutrizioan adituak direnez, dokumentalean parte hartzera gonbidatu dituztela, eta eman zaien testua irakurri behar dutela. Irakurtzeko eman zaien testua osasunari eta elikadurari buruzkoa izan denez, irudikatzeko eman zaien egoera testuaren gaira egokitu da. Testua moldatu egin da, aztertu nahi izan diren ahoskerak bildu ahal izateko.

eta *Huawei P9 Lite* sakelako telefonoa erabili zen. Hitzunen jardunak grabatu aurretik zenbait proba egin ziren grabazioen kalitatea probatzeko.⁶

5.3. Datuen azterketa: joera nagusiak

Bi hizkera-mailetako datuak bildu ondoren, datu horiek deskribatu eta aztertu dira. Datuak antolatzeke, EBAZ arau edo proposamenen antolaketan eta hurrenkera izan da oinarri, batez ere, hizkera-maila zainduko jardunetan EBAZ arau edo proposamenak betetzen diren edo ez erakustea errazteko. Honela, bada, bokalak, bokal bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante bilkurak (Euskaltzaindia 1998: 487-490) bereizi dira datuak aurkeztu eta aztertzeke.

Aztergai den ahoskera bakoitzaren kasuan, lehendabizi, bildutako datuak ekarri dira, hizkera-maila arduragabekoak eta zaindukoak, hurrenez hurren. Ondoren, datu horien azterketa egin da, non bi hizkera-mailetako ahoskerak erkatu diren eta, hizkera-maila zainduko jardunen kasuan, EBAZ arau edo proposamenak betetzen diren edo ez adierazi den. Honekin batera, galdelegiaren bidez jasotako informazioa baliatu da zenbaitetan, bereziki, hitzunen EBAZ arau edo proposamenen inguruan dituzten uste edo jarrerak agerian jartzeko.

Bi hizkera-mailetako ahoskerak erkatuta, oro har, bi joera nagusi topa daitezke: bi hizkera-mailetan ahoskera bera erabiltzekoa eta hizkera-mailaren arabera ahoskera aldatzekoa. Lan honetara bi joera horiek erakusten dituzten zenbait ahoskeraren azterketa ekarri dugu; artikularen luzera muga dela eta, joera bakoitzeko bi kasu edo adibide ekarri ditugu.⁷

⁶ Azterketa akustikoa egiteko grabazioak grabagailu batekin egitea komeniko litzateke, kalitate tekniko hobea duelako honek. Lan honetan, ordea, azterketa akustikorik egin ez denez, kalitate tekniko "onargaria" duela irudituta egin ditugu grabazioak aipatu dugun sakelako telefonoarekin.

⁷ Artikulu honetan joera bakoitzeko bi kasu baino ez ditugu aztertu, baina lanaren "osotasuna" ulertze aldera, aipatu nahiko genuke, lanean (lan "osoan") EBAZ arau edo proposamenetan adierazten diren gainerako bokal, bokal bilkura, kontsonante eta kontsonante bilkurak ere aztertu ditugula. Hortaz, hemen azaltzen ditugun joerak segmentu eta segmentu bilkura horien guztien ahoskera aztertzeke ateratakoak dira.

5.3.1. *Ahoskera aldaketarik ez hizkera-mailaren arabera*

Goraxeago aurreratu bezala, kasu batzuetan hitzunek ahoskera bera erabili dute bi hizkera-mailetan. Horren erakusle ditugu, esaterako, <r> eta <rr> kontsonanteen ahoskera eta <j>-rena.⁸ Bi kasu hauen artean, ordea, bada ezberdintasun bat: <r> eta <rr> kontsonanteen ahoskeraren kasuan EBAZ arau edo proposamena betetzen da, baina <j>-ren ahoskeraren kasuan ez da betetzen.

- <r> eta <rr> kontsonanteen ahoskera

<r> eta <rr> bi hizkera-mailetan, oro har, [r] dardarkari hobikari ahoskatu dira. Salbuespena hiztun baten (MLE-ren) [R] dardarkari ubularraren ahoskera izan da, honek bi hizkera-mailetan, kasu batzuetan, frantsesekoaren (gertuen geratzen zaiguna aipatzearren) erako ahoskera ubularra erabili du. Maila arduragabeen honako datuak ditugu:

(1) IU: *a[r]gi*;⁹ *p[r]obatu*; *opo[r]ak*.

LL: *au[r]ten*; *t[r]ena*; *ja[r]i*.

MB: *ule[r]tu*; *lib[r]e*; *a[r]azoia*.

OB: *alde[r]di*; *k[r]iminalak*; *eto[r]i*.

⁸ <r> eta <rr> kontsonanteak, dardarkari ahoskatzen direnetan (<r> ttaka ere izan baitaiteke), batez ere Hegoaldean, hobikari ahoskatu ohi dira, hizkera-maila edozein izanda ere. Kasu honetan, dardarkarien ahoskera (ahoskunea, zehazki) ez litzateke hizkera-mailen araberako aldagaia. Ikusiko dugun bezala, ordea, hiztunetako batek, hobikariaz gain, [R] ubularra ere ahoskatzen du (Iparraldean maizago aurkituko duguna, ziurrenik), nahiko "deigarria" da hiztun honen kasua eta, beraz, dardarkarien azterketa hona ekartzea erabaki dugu.

⁹ Datuen irakurketa errazte aldera, idazkera ortografikoan eman dira atal bakoitzean hizpide den ahoskera erakusten duten hitz nahiz hitz multzoak. Kasu bakoitzean aztergai den hotsa edo hots bilkura bakarrik transkribatu da, une oro gertakari foniko bakarra izan baita hizpide, segmentu edo segmentu multzo berean egon daitezkeen beste tasunetan arreta jarri gabe. Segmenturen bat ahoskatu ez denetan (kenketen ondorioz), halabeharrez, ez da ezer transkribatu. Batzuetan datuen ondoan glosak jarri dira, ahoskatutakoaren interpretazio gramatikala argitzeko edo, segmenturen bat ahoskatu ez denetan, zein hitzez ari garen azaltzeko.

MLE: *a[r]kumea; te[r]aza*, baina *t[R]istea*.

AO: *e[r]lijio; lib[r]e; ho[r]ekin*.

Maila zainduan ere ahoskera berak topatzen ditugu, hobikaria ahoskatu dute, oro har, hiztun guztiek eta MLE hiztunak ubularra ere bai batzuetan:

(2) MLE: *saga[r]; sa[r]itan*, baina *indust[R]ialak; kont[R]a; post[R]erako*.

Gainerakoek: *saga[r]; sa[r]itan; indust[r]ialak; kont[r]a; post[r]erako*.

Hiztunek, beraz, <r> eta <rr>, oro har, bi hizkera-mailetan hobikari ahoskatu dituzte. Maila zainduari begira jarrita, EBAZ arau edo proposamena bete dute, ahoskera hobikaria hobesten baita bertan. MLE hiztunaren ahoskera ubularra izan da salbuespen. Hiztun honek frantsesekoaren erako ahoskera ubularra erabili du bi hizkera-mailetan horzkari ondorengo dardarkaria ahoskatzerakoan.¹⁰

Hiztuna Iparraldekoa izango balitz ez litzateke harritzekoa [R] ubularra ahoskatzea, /R/ ubularrak lekua baitu jada Iparraldeko hiztun askoren fonema inbentarioan (Oñederra eta beste 2014, 2015). MLE hiztuna, ordea, ez da Iparraldekoa; hortaz, ahoskera ubularra erabiltzea ezin zaio egotzi frantsesaren eraginari. Kasu honetan hizkuntzaz jabetzean egindako aukeragatik ahoskatzen du, ziurrenik, dardarkari ubularra. Hiztunak berak adierazi du bere gurasoek ubularra ahoskatzen zutela eta berak ere, haurra zenean, testuinguru guztietan (bai bokal artean, bai kontsonante ondoren, etab.) ubularra ahoskatzen zuela. Gero, ordea, lotsak eraginda, dardarkari hobikaria ahoskatzen ikasteko ahalegina egin zuen eta badirudi lortu duela zenbaitetan hobikaria ahoskatzea. Horzkari ondorengo testuingu-

¹⁰ Hiztunari berari entzunda, /d/ ahostun nahiz /t/ ahoskabe ondoren ahoskatzen du ubularra. Horzkari ondoren (eta ez, oro har, kontsonante ondoren) esaten da ahoskatzen duela hiztunak ubularra, nolabait esan, ubular “garbia” testuinguru horretan hautematen delako. Tresna bidezko azterketa akustiko eta artikulatorio baten bidez komeniko litzateke egiaztatzea ea beste kontsonanteen ondoren ubularra ahoskatzen duen edo ez. Esaterako, hiztunaren bi mailetak jardunetan bildutako datu hauek (dardarkaria kontsonante ez-horzkari baten ondoren agertzen denekoak) aztertzea interesgarri litzateke: *libre, integralak, azukre, prozesu, kapritxo*.

ruak, ordea, hiztuna berriz bere lehen fonemara (ubularrera) itzultzea errazten duela dirudi.¹¹

- <j> kontsonantearen ahoskera

Hiztun guztiek bi hizkera-mailetan <j> [x] belar ahoskabe ahoskatu dute, oro har. Hona maila arduragabeko jardunetan bildutako datu batzuk:

(3) IU: [x]antzi; [x]otze ‘jotzen’.

LL: [x]arri; [x]ende; [x]o.

MB: [x]akin; [x]endek ‘jendeak’.

OB: [x]ateko; [x]endea; [x]o.

MLE: [x]an; [x]ende; [x]ostailu.

AO: [x]aso; [x]ertse; [x]o.

Maila zainduan ere <j> [x] belar ahoskabe ahoskatu da, oro har. Dena den, batzuetan [j]¹² sabaikaria ere ahoskatu da:

(4) IU: [x]an; [x]atea; [x]atorrizko; [x]aitsiko, baina [j]oateko.

MB: [x]atea; [x]atorrizko; [x]aitsiko; [x]oateko, baina [j]an; [j]atea.

Gainerakoek: [x]an; [x]atea; [x]atorrizko; [x]aitsiko; [x]oateko.

¹¹ Esanenez, batez ere, testuinguru “errazetan”, bokal artean, ahoskatzen duela hobikaria. Bokal artea izan ohi da kontsonanteen agerleku nabarmenena; hautematen “errazena” eta, beraz, kontrolatzen ikasteko gune aproposena. Kontsonante ondorengo testuingurua, ordea, konplexuagoa izan ohi da. Gogora dezagun, esaterako, antzina, euskal hiztunek ezin zituztela latineko li[br]um bezalako muta cum liquida taldeak ahoskatu eta, besteak beste, bokal bat tartekatu ohi zela, lib[u]ru, alegia.

¹² Lehen hurbilketa gisa, hitza hartu da gertaeren esparru prosodikotzat. Honela, hitz hasierako <j>-k sabaikari ahoskatu direnetan, [j] herskari sabaikaria idatzi da. Corpusa berriz begiratzea komeniko litzateke honelako kasuetan, benetan ingurune jarraitua edo ez-jarraitua den jakin ahal izateko.

Gauzak honela, <j> [x] belar ahoskabe ahoskatu dute hiztunek, oro har, bi hizkera-mailetan. Maila zainduko jardunetara begira jarrita, EBAZ arau edo proposamenetan hobesten den ahoskera sabaikaria ez dute erabili.¹³ Dena den, maila zainduan bi hiztunek (IU-k eta MB-k) [j] sabaikaria ahoskatu dute hitz gutxi batzuetan.

Galdetegian galdetu zaie <j> sabaikari ahoskatzeaz zer pentsatzen duten, eta guztiek esan dute arrotz edo “ez-natural” iruditzen zaiela edo ez zaiela “ateratzen” ahoskera hori. Are gehiago, lau hiztunek (IU-k, MB-k, MLE-k eta AO-k) adierazi dute badakitela <j> sabaikari ahoskatu behar dela, baina ez zaiela “ateratzen”, ez daudelako horrela ahoskatzera ohituta, lotsa puntu bat ere ematen omen die sabaikari ahoskatzeak. Badirudi, hortaz, hiztunengan artifizialtasun sentipena nagusitzen dela <j> sabaikari ahoskatzerakoan.¹⁴ IU-k eta MB-k maila zainduko hitz batzuetan sabaikaria ahoskatu dute eta, hortaz, galdetu zaie ea zergatik, oro har, [x] belar ahoskabea erabili duten eta batzuetan sabaikaria. Biek adierazi dute ahoskerari ez diotela arretarik jarri eta “atera” zaien bezala irakurri dutela, ez dutela nahita (jakinaren gainean) egin bataren edo bestearen alde. Izatez ba omen dakite sabaikaria ahoskatzea hobesten dela euskara batuan eta, agian, horregatik ahoskatuko omen zuten batzuetan sabaikaria. Hala ere, nabarmendu dute “naturalena” eurentzat belar ahoskabea erabiltzea dela (ikus 3.1. atalean artifizialtasun sentipenaz esandakoa).

5.3.2. *Ahoskera aldaketa hizkera-mailaren arabera*

Orain arte bi hizkera-mailetan ahoskera bera erabili dutela hiztunek ikusi dugu. Hau ez da izan, ordea, joera bakarra, beste batzuetan hiztunen ahoskera aldatu egin baita hizkera-mailaren arabera. Joera honen adibide

¹³ Ikus EBAZeko VIII. araua <j>-ren ahoskera ez-sabaikaria onartzen deneko salbuespen edo kasuetarako (Euskaltzaindia 1998: 489).

¹⁴ Antzeko sentipena adierazi dute hiztunek EBAZ arau edo proposamenetan hobesten den <e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g>-ren ahoskera ahostunaren kasuan. Guztiek [x] belar ahoskabea ahoskatu dute bi hizkera-mailetan (*ekolo[x]iko*), ahostuna ahoskatzea (*ekolo[ɣ]iko*) ez omen zaie “natural” egiten, horrela ebakitzeak lotsa ere ematen omen die.

ditugu, besteak beste, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskera eta <zd> kontsonante bilkurarena.¹⁵ Bi hizkera-mailetan ahoskera bera erabili denean adierazi dugun bezala, kasu honetan ere, batzuetan (bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskeraren kasuan) EBAZ arau edo proposamenak bete dira eta beste batzuetan (<zd> bilkuraren ahoskeraren kasuan) ez dira bete.

- Bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskera

Hizkera-maila arduragabeen hitzunek bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak askotan ez dituzte ahoskatu:

(5) IU: *oain* ‘orain’; *meiku* ‘mediku’.

LL: *biali* ‘bidali’; *launekin* ‘lagunekin’.

MB: *gorra* ‘gogorra’; *geatu* ‘geratu’.

OB: *eukiko* ‘edukiko’; *proatzea* ‘probatzea’.

MLE: *besteik* ‘besterik’; *eunen* ‘egunean’.

AO: *neonek* ‘neronek’; *badao* ‘badago’.

Maila zainduan, aldiz, beti ahoskatu dituzte bokalarteko kontsonante hauek:

(6) Hitzun guztiek: *pro[β]atuko*; *e[ð]o*; *e[ɣ]iten*; *o[r]aindik*.

Hitzunen datuek erakusten dutenez, hizkera-mailaren arabera ahoskera aldatu egin da. Arduragabeen emankorra izan da bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak ez ahoskatzea eta, aldiz, zainduan beti ahoskatu dira.

Kontsonante hauek ahoskatzen ez direnean, herskari ahostunen kasuan, bi bilakabide gurutzatzen dira. Batetik, herskari ahostunen jarraitutzea ger-

¹⁵ EBAZen <zd> bilkurarekin batera aurkezten dira <zb, zg> bilkurak, guztietan txistukari gehi herskari ahostun kontsonante bilkura baitugu. Artikuluaren luzera muga dela eta, ordea, hemen <zd> bilkuraren ahoskera baino ez dugu aztertuko, <zb, zg> bilkuren kasuan baino hitzunen datu gehiago baititugu.

tatzen da (ahoskatzen direnean ere gertatzen da hori); hau da, kontsonante hauek ingurune jarraituan daude (bokal artean, zehazki) eta aldameneko bokalen jarraitutasunera (artikulatzaileek ez diote trabarik egiten aire-etorriari) asimilatzen dira, erabateko hersketa galdu egiten baitute, herskari izatetik hurbilkari izatera igaroz (Romero 1996: 103). Bestetik, hurbilkari horien eta /r/ ttakaren kenketa gertatzen da. Errazagoa da ekoizpen ahaleginaren aldetik, eta ohargarritasunaren kaltetan, ingurune jarraituko kontsonante hauek ez ahoskatzea. Ekoizpen ahaleginari begira errazagoa dela diogu, hurbilkaria galtzen denez, segmentu bilkuran zehar artikulatzaileek ez diotelako aire-etorriari etenik jarri beharrik; honek, ordea, ez dio mesederik egiten ohargarritasunari, segmentu bat kentzen denez, seinalea ahuldu egiten baita. Maila arduragabeetan ez zaionez entzungarritasunari edo argitasunari hizkera-maila zainduetan adinako lehentasunik ematen, kontsonante hauen kenketak, oro har, beste kenketak bezala, *lenitio*ak izanik, hizkera-maila arduragabeko jardunetan gertatzea ohikoa da (Donegan; Stampe 1979: 142-143). <zd> bilkuraren ahoskera aztertzerakoan (ondorengo azpiatala) azalduko ditugu *lenitio* edo ahultze bilakabideen eta *fortitio* edo indartze bilakabideen arteko alde nagusiak.

Maila zainduko jardunetan, berriz, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak, EBAZ arau edo proposamena betez, beti ahoskatu dira. Aldagarritasuna norabide egokian gauzatu da, beraz.¹⁶

Galdetegian bi esaldi irakurri zaizkie hiztunei eta euren zeregina izan da esatea ea zerbait aldatuko luketen edo ez, esaldi horiek ETB1eko dokumental baterako balira. Esaldi horietako bat hauxe izan da: *geo etorriko zela [x]akinarazi zuen*. Hiztun guztiek berehala adierazi dute *geo* ez luketela esango, *ge[r]o* baizik. Are gehiago, harrigarri gertatu zaie *geo* irakurri eta galdetzea ea zerbait aldatuko luketen edo ez, ahoskera hori maila zaindurako posible

¹⁶ Antzeko joera topatu da, besteak beste, bi bokalen artean <h> duten bokal bilkuren ahoskaren azterketan. Hiztunak Hegoaldekoak izanik, ez dute <h> ahoskatzen eta, maila arduragabeko jardunetan, oro har, bokalak diptongoan edo bokal bakarra eginez ahoskatu dituzte. Zainduan, berriz, gehiagotan ahoskatu dira bokalak bi silabatan. Esate baterako, hiztun berak (AO-k) hitz bera (*ahal*) bi eratara ahoskatu du, hizkera-mailaren arabera: [*a*] maila arduragabeen eta [*a.a*] zainduan.

dela pentsatzea “ezinezkoa” iruditu zaie. Eskatu zaien aldaketa (*geo* beharrean, *ge[r]o*) “errazegia” dela pentsatu bide dute, “nabariegia” balitz bezala erantzun dute, galdetzen ari ginenak zentzu handiegirik ez balu bezala. Galdera bat erantzuteko errazegia denean, ezkutuan beste zerbait (“tranpa” bat) dagoela uste izateko joera izan ohi dugu maiz; horixe izan bide da hiztunek sentitu dutena *geo* irakurri eta zerbait aldatuko luketen galdetu zaientean. Honela, bada, nahiko argi dute maila zainduan bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak ahoskatzearen alde egingo luketela. Bokalarteko <r>-ren kenketarekin bakarrik egin da proba, baina norabidearen seinaleztat har genezake; hau da, gainerako kontsonante “ahulekin” ere erantzun bertsuak izango genituzke ziurrenik. Bide batez, esaldi bereko *[x]akinarazi* formako *[x]* ahoskera belarraz ez du inork ezer esan.

- <zd> kontsonante bilkuraren ahoskera

<zd> kontsonante bilkura, gehienetan, *ez* partikularen eta <d> kontsonantez hasitako aditz formen bidez eratzen da. Hizkera-maila arduragabeen bilkura horretako herskaria *[t]* ahoskabe ahoskatu dute hiztun guztiek kasu guztietan:

- (7) IU: *ez [t]ue jartzen* ‘ez dute jartzen’; *ez [t]aket* ‘ez daukat’; *ez [t]iela* ‘ez direla’.

LL: *ez [t]eu iten* ‘ez dugu egiten’; *ez [t]igue uxten* ‘ez digute uzten’; *ez [t]itut ikusi* ‘ez ditut ikusi’.

MB: *ez [t]akit* ‘ez dakit’; *ez [t]ie* ‘ez dira’; *ez [t]igue erakusten* ‘ez digute erakusten’.

OB: *ez [t]io uxten* ‘ez dio uzten’; *ez [t]it ematen* ‘ez dit ematen’; *ez [t]itut erosi* ‘ez ditut erosi’.

MLE: *ez [t]a ikusten* ‘ez da ikusten’; *ez [t]unak* ‘ez duenak’; *ez [t]akizumen* ‘ez dakizunean’.

AO: *ez [t]et esango* ‘ez dut esango’; *ez [t]iela* ‘ez direla’; *ez [t]ezula* ‘ez duzula’.

Maila zainduan, berriz, <zd> bilkurako herskaria [d] ahostun ahoskatu dute:

(8) Hitzun guztiek: *ez [d]a; ez [d]ugu; ez [d]en; ez [d]ira.*

Ahoskera hauek kontuan izanda, hizkera-mailaren arabera, kontsonante bilkura honen ahoskera aldatu egin da. Maila arduragabeen <zd> bilkurako herskaria ahoskabe ([t]) ahoskatu dute hitzun guztiek eta zainduan, berriz, ahostun ([d]).

Ez-en ondorengo herskaria ahoskabe ahoskatu denetan (maila arduragabeen), ahoskabetze asimilazioa gertatu da, herskaria aurreko igurzkariaren ahoskabetasunera hurbildu baita, segmentu bilkura ahoskagarriago eginez; ahots kordek ez dute bilkura osoan zehar dardararik egin beharrik. Donegan eta Stampek (1979: 142-143) diotena kontuan hartzen badugu, asimilazioak *lenitio* edo ahultze bilakabideak dira, segmentu edo segmentu bilkurak ahoskatzeko errazago egiteko helburua edo ondorioa dutenak, eta argitasuna eskatzen ez duten egoera edo estiloak (hizkera-maila arduragabeak, besteak beste) izan ohi dira hauen gertaleku naturalenak.

Ohargarritasunari begira jarrita, ordea, ahoskabetasuna trabari optimoen ezaugarri denez, asimilatu den segmentua (/d/ > [t]) indartu eta entzungarriago bihurtu da; alde honetatik, *fortitio* edo indartze bilakabideen aldera hurbilduko ginatke. *Fortitio*ek, oro har, segmentuen euren tasunak indartzen dituzte edo segmentuak aldameneko segmentuetatik nabarmentzen dituzte. Hauen helburua edo ondorioa, oro har, ohargarritasunari laguntzera zuzendua egon ohi da eta argitasuna eskatzen duten egoera edo estiloetan (hizkera-maila zainduetan, besteak beste) gertatu ohi dira (Donegan; Stampe 1979: 142).

Silaba-egitura zenbaitetan bilakabide fonologikoen erantzule izaten dela kontuan izanik (Donegan; Stampe 2004: 17-18), pentsa liteke herskaria silaba hasieran agertzeak ere lagun dezakeela herskaria ahoskabe ahoskatzeko (Vennemann 1988: 13-14), euskarak silaba ekinak indartzeko joera baitu (Jauregi 2007: 279) eta, esan dugun bezala, herskaria ahoskabetzean segmentua bera indartu egiten da.

Hizkera-maila zainduan, berriz, herskari ahostunaren ahoskera nagusitu da. Kasu honetan, ez da ahoskabetze asimilaziorik gertatu, txistukariaren

ahostuntzea baizik; hau da, txistukaria ondoren duen herskariaren ahostuntasunera hurbildu da. Honela, [ʃ] txistukari ahoskabea ahoskatu beharrean, [ʒ] ahostuna ahoskatu dute hiztun guztiek: *e[ʒ] da, e[ʒ] dugu, e[ʒ] den, e[ʒ] dira*.

Kontsonante ahostunen aurreko txistukariaren ahostuntzea ohikoa da, besteak beste, gaztelaniaz. Hurch-ek (1988: 347) dioen bezala, hizkuntzek bilakabide ezberdinak hauta ditzakete arazo (zailtasun artikulatorio bat edo oharrenari dagokion zailtasun bat) beraren aurrean. Aztergai dugun bilkuraren kasuan, kontsonante multzo bakarrean ahotsaren bi balio (ahoskabe/ahostun) “konbinatu” beharrak sortzen du zailtasuna, ahots kordek dardara ez egitetik dardara egitera igaro beharko bailukete segmentu bilkuran. Zailtasun honen aurrean, ahoskagarritasunaren mesedetan, ahotsaren balio bakarra izatearen alde egiten da. Aukera ezberdinak egiten dituzte, ordea, euskarak eta gaztelaniaz: euskaraz herskaria ahoskabetzearen alde egiten da (*ez [t]a*) eta gaztelaniaz, berriz, txistukaria ahostuntzearen alde (*la[ʒ] damas* ‘damak’). Honela, lehenengoaren kasuan, segmentu bilkura osoa ahoskabe bihurtzen da eta bigarrean, berriz, ahostun.

Aztergai ditugun datuetan ikusi dugun moduan, euskaraz igurzkari ahoskabe eta herskari ahostun bilkura baldin badugu, herskariaren ahoskabetzea gertatu ohi da: *ez [t]akit* (MB). Hitz barnean ere euskaraz txistukariaren ondorengo herskaria ahoskabea izan ohi da: *ez[p]ain, ez[t]i, kez[k]a, as[p]ertu, es[t]u, nes[k]a*. Txistukariaren ondorengo herskaria ahostun ahoskatzen deneko forma gutxi batzuk baino ez dira topatzen, gehienak hitz eratu eta mailegu erlatiboki berriak lirake: *des[b]erdin, ez[b]erdin, des[b]ideratu, ez[d]eus, les[b]iana, ez[g]auza*. Aurreko lerroetan adierazi bezala, gaztelaniaz, aldiz, ingurune berean igurzkaria ahostuntzen da, ez da herskaria ahoskabetzen (Hurch 1988: 347): *a la[ʒ] doce* ‘hamabietan’, *ha[ʒ] dicho* ‘esan duzu’.

EBAZ arau edo proposamenetan txistukariaren ondoko herskaria ahoskabe ahoskatzea hobesten da; izan ere, gorago azaldu dugun bezala, asimilazioa gertatzen bada ere, ebakeraren indartzea dakar ahoskabeak, nabarmenago baita oharrenaren aldetik eta, beraz, hizkera zaindurako aproposa da, maila zainduetan ohargarritasuna arduragabeetan baino gehiago zaindu

ohi baita (gogoratu 4.1. atalean esandakoa). Hitzunek, hortaz, ez dute EBAZ arau edo proposamena bete, maila zainduko ahoskerek erakusten duten bezala, guztiek txistukari ondoko herskaria ahostun ahoskatu baitute. Badirudi idatzi bezala irakurtzeko joera nagusitu dela eta gaztelaniaren (kasu honetan) ahoskerara hurbildu direla.¹⁷

Galdetegian hitzunei galdetu zaie nola esango luketen euskaraz *comer sano no es caro* bi egoeratan, Alegian lagunartean (hizkera-maila arduragabea) eta balizko ETB1eko dokumentalean (hizkera-maila zaindua). Lagunartean baleude, *ex [t]a* ahoskatuko omen lukete, eta ETB1eko dokumentalean, berriz, *ex [d]a*.¹⁸ Euren esanetan, euskara estandarreko araua txistukari ondorengo herskaria ahostun ahoskatzea omen da. AO hitzunik, galdetu zaionean ETB1eko dokumentalean nola esango lukeen esaldia, lehendabiziko aldi *ex [t]a* ahoskatu du, baina berehala zuzendu du, nabarmenduz [t] herskari ahoskabea “atera” zaiola, baina badakiela euskara batuan *ex [d]a* ahoskatu beharko litzatekeela, ahostuna, alegia.

Honekin batera, idatzi bezala ahoskatzeko joeraren erakusle izan liteke, irakurtzeko testua emandakoan, OB hitzunik esan izana ez duela asko “bel-durtzen” zeregin horrek, testua euskara batuan dagoenez, ez omen du eta aldaketarik egin beharrik, idatzita dagoen bezala irakurtzearekin nahikoa omen du. Beraz, badirudi, hitzun honen arabera, batuaz ahoskatzea idatzi bezala irakurtzearekin lotzen dela.

Idatziaren estandarizazioa nahiko berria izateak indartu egiten du letren ahoskerarako joera; hau da, hitzuentzat (batzuentzat besteentzat baino gehiago) batu idatzia forma berria izanik eta ahoskatzen ez delako irakatsi, letrak fonemekin erabat berdintzeko joera nagusitu ohi da (Haugen 1966: 930), are gehiago euskararen idazkera nahiko “fonetiko” dela kontuan har-

¹⁷ Idatzi bezala irakurtzeko joera antzematen da baita ere hitz mugako kontsonante ozen ondorengo txistukariaren ahoskeran. Maila arduragabean hitzun guztiek afrikatua ahoskatu dute (*esan [tʃ]ion* ‘esan zion’), eta zainduan, berriz, igurzkaria (*izan [ʃ]utenean*). Kontsonante bilkura hauen ahoskeraren azterketarako, ikus Urreta (inprimategian), bertan landu baitugu bilkura hauen ahoskera.

¹⁸ Zehazki, honela itzuli dute esaldia: *sano/osasuntsu [x]atea ex [t]a garestie* lagunarterako eta *osatsuntsu [x]atea ex [d]a garestia* ETB1eko dokumentalerako. Bide batez, beste behin <j> [x] belar ahoskabe ahoskatu dute guztiek balizko dokumentalerako (maila zaindurako).

tuta (Oñederra 1994: 1594). Gorago aztertu ditugun hiztunen datuek erakusten duten bezala, letren ahoskerarako joera horrek erdaren (gaztelania-rena, kasu honetan) eredu nagusitzea ekarri ohi du maiz. Ez da ahoskatzen irakatsi (ikus 2.1. atala) eta, hortaz, hiztunek euren kabuz “bilatu” eta “eratu” behar izan dute hizkera berrirako eredu fonikoa. Horretarako, besterik ezean, erdarara jotzea da “errazena” eta ohikoena (eskura duten eredu hori da). Horrela, ahoskera berri bat hartzen du hizkera berriak. Hau batuaren hasierako garaietan (berria zenean) gertatuko zen, baina orduan sortutako aukera egonkortu eta eredu gisa zabaldu da (Oñederra eta beste 2015: 508), besteak beste, ez zaiolako hiztunari, oro har, beste eredurik (EBAZen proposatzen denari jarraituta) irakatsi.

6. Ondorioak

Lan honetan euskararen ahoskera eta hizkera-mailak izan ditugu aztergai. Hain zuzen ere, euskararen ahoskera aztertu dugu hizkera-maila arduragabeen eta zainduan, hizkera-mailaren arabera, ahoskera aldatzen den edo ez jakiteko helburuarekin. Lehenengo ataletan ahoskeraren estandarizazioaren (2. atala), EBAZ arau edo proposamenen (3. atala) eta hizkera-mailen (4. atala) inguruko alderdi batzuk azaldu ditugu eta, jarraian, horietako zenbait kontu lanaren oinarri izan den corpusa lantzerakoan (5. atala) jorratu ditugu. EBAZ arau edo proposamenak erreferentziatzat hartuta, sei hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko jardunetako ahoskerak aztertu ditugu. Bi mailetako ahoskerak erkatuta, oro har, joera ezberdinak topatu dira.

Batetik, batzuetan hiztunek zenbait hotsen ahoskera bera erabili dute bi hizkera-mailetan. <r> eta <rr> kontsonanteen ahoskera eta <j>-rena dira joera horren erakusle. Lehendabizikoen kasuan, hizkera-mailaren arabera aldagarritasunik ez da topatu, Hegoaldean batez ere, kontsonante hauek hobikari ahoskatzen baitira, hizkera-maila edozein izanda ere. Hone-la, EBAZ arau edo proposamena (hobikari ahoskatzea hobesten da) “bestarik gabe” bete da; MLE hiztunaren kasua izan da salbuespen, honek bi mailetan horzkari ondorengo dardarkaria [R] ubular ahoskatu baitu.

Bigarrenaren (<j>-ren ahoskeraren) kasuan, berriz, EBAZ arau edo proposamenetan hobesten den ahoskera zein den jakinda ere, maila zainduan ez da aldatu maila arduragabeko ahoskera. Hitzun guztiek bi hizkera-mailetan, oro har, [x] belar ahoskabea ahoskatu dute, nahiz eta galdetegian hitzun batzuek adierazi badakitela hizkera zainduan ahoskera sabaikaria hobesten dela. Hortaz, EBAZ arau edo proposamenetan hobesten diren zenbait ahoskera erabiltzerakoan hitzunek jarrera “ezkor” samarra edo ezintasuna erakutsi dute. Ezintasun hori lotua egon daiteke hitzunek, ohituta ez dauden ahoskerak erabiltzerakoan, izan ohi duten artifizialtasun sentipenarekin (3.1. atala). Sentipen horren adierazle da, esaterako, zenbait hitzunek galdetegian esan izana ahoskera batzuk (<j> sabaikari ahoskatzea, besteak beste) arrotz edo “ez-natural” iruditzen zaizkiela. Artifizialtasun sentipenak maiz lotsa ere ekarri ohi dio hitzunari ohituta ez dagoen ahoskeraren bat erabiltzerakoan; honela, ahoskera hori erabiltzeko ezina nagusitu ohi da.

Bestetik, beste kasu batzuetan bi hizkera-mailetan ahoskera ezberdinak erabili dituzte hitzunek. Esaterako, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak maila arduragabean ez dituzte askotan ahoskatu (*proatzea* ‘probatzea’ (OB), adibidez) eta, aldiz, zainduan beti ahoskatu dituzte (*pro[β]atuko*, esate baterako). Aldagarritasuna norabide egokian gauzatu da kasu honetan. Bi mailetan ahoskera ezberdinak erabili diren beste batzuetan, ordea, ez dituzte EBAZ arau edo proposamenak bete. Joera hori erakusten du <zd> bilkurako <d> maila arduragabean hitzun guztiek [t] ahoskabe eta maila zainduan, berriz, [d] ahostun ahoskatzeak. Kasu honetan, idatzi bezala ahoskatzeko joera nagusitu da eta aldagarritasuna ez da norabide egokian gauzatu.

Idatzi bezala ahoskatzeko joerarekin lotuta, pentsa liteke, agian, aldagarritasuna norabide egokian gertatzen den zenbaitetan ere, ez dela EBAZ arauari berariaz jarraitzeagatik gertatzen, baizik eta letren eraginagatik gertatzen dela. Honela, letrak lirateke aldagarritasunaren norabidearen baldintzatzaile. Aipatu dugu, esate baterako, *ex [t]a* ahoskatzen duenak maila arduragabean, maila zainduan, idatziaren eraginagatik (gogoratu hitzunek galdetegian esana), *ex [d]a* ahoskatzen duela, EBAZ arau edo proposamena ez betez. Era berean, pentsa liteke, adibidez, *proatu* ‘probatu’ ahoskatzen duenak maila arduragabean, maila zainduan *pro[β]atu* ahoskatzea letren

eraginagatik gertatzen dela, ez EBAZ arau edo proposamenak berariaz betetzeagatik.

Dena den, ideia honek ikerketa sakonago bat eskatuko luke; uler bedi, beraz, lan hau etorkizuneko ikerketen abiapuntu edo hasiera gisa. Corpus zabalagoa izateak lagunduko liguke, besteak beste, azterketa osatzen, hiztunek erakusten duten joera hemen aipatutako ideiarekin bat datorren edo ez egiaztatzeko. Aurrera begira, hortaz, ikuspegi osoago baterako, corpus zabalagoa biltzea litzateke asmoa. Honez gain, batetik besterako bidea graduala izan arren, hizkera-mailak ahalik eta gehien finkatzea litzateke etorkizuneko erronketako bat, EBAZ arau edo proposamenen erabilera hobeto ulertu ahal izateko eta hiztunen datuak zehatzago kokatu eta aztertu ahal izateko. Ahoskera estandarizatzearen helburua ez da eredu bakarreko hizkuntza bat sortzea, lanean adierazi bezala, asmoa da egoera zainduetarako baliabideak eskaintzea (Euskaltzaindia 1998: 485). Honela, bada, ezinbestekoa litzateke hizkera-mailak zehaztea eta bakoitzari dagokion lekua ematea. Euskararen kasuan, bereziki beharrezkoa da eginbehar hau, artikuluan adierazi bezala, hizkuntza gutxitua izanik, denbora-tarte luzean hizkera formalik ez izateak hizkera-mailen arteko egitura eta antolaketarik ez izatea ekarri baitu.

Espero dugu etorkizuneko ikerketak gai izango direla aipatutako alderdi hauei eta ikertzeke dauden beste hainbati erantzuteko.

Erreferentzia bibliografikoak

AUER, Peter (2005). «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», in Nicole Delbecque, Johan Van Der Auwera & Dirk Geeraerts (arg.), *Perspectives on Variation. Sociolinguistic, Historical, Comparative*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 7-42.

CESTERO, Ana María & PAREDES, Florentino (2018). «Creencias y actitudes hacia las variedades cultas del español actual: el proyecto PRECAVES XXI», *Boletín de Filología* 53 (2): 11-43.

CORTÉS MORENO, Maximiano (2002). «Didáctica de la entonación: una asignatura pendiente», *Didáctica (Lengua y Literatura)* 14: 65-75.

DARQUENNES, Jeroen (2011). «Minorities, language politics and language planning in Europe», in Bernd Kortmann & Johan Van Der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Berlin-Boston: Mouton de Gruyter, 547-560.

DEMONTE, Violeta (2003). «Lengua estándar, norma y normas en la difusión actual de la lengua española», *Congreso de la ACIS (Association for Contemporary Iberian Studies)*. Valentzia. <https://digital.csic.es/bitstream/10261/13074/1/Documento1.pdf>. [2021-01-29].

DONEGAN, Patricia & STAMPE, David (1979). «The study of Natural Phonology», in Daniel Allan Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Bloomington: Indiana University Press, 126-173.

——— (2004). «Rhythm and synthetic drift of Munda», in Rajendra SINGH (arg.), *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 3-36.

DURAND, Jacques (2014). «Corpora, variation, and phonology: an illustration from French liaison», in Jacques Durand, Ulrike Gut & Gjert Kristoffersen (arg.), *The Oxford Handbook of Corpus Phonology*. Oxford: Oxford University Press, 240-264.

ESKÉNAZI, Maxine (1993). «Trends in Speaking Styles Research», *EUROSPEECH'93*. Berlin, http://www.isca-speech.org/archive/eurospeech_1993. [2021-01-29].

EUSKALTZAINDIA (1998). «Euskara Batua Ahoskera Zaindua», *Euskera* 43 (2): 485-490.

FERGUSON, Charles Albert (1996). «Standardization as a Form of Language Spread», in Thom Huebner (arg.), *Sociolinguistic Perspectives: Papers on Language in Society, 1959-1994*. Oxford-New York: Oxford University Press, 189-199.

GONZÁLEZ, Francesc (2002). «Los conceptos de codificación y estandarización según las experiencias catalana y asturiana», *Ianua. Revista Philologica Románica* 3: 13-33.

HARMER, Jeremy (2007). «Teaching pronunciation», *The Practice of English Language Teaching*. Londres: Pearson Education Limited, 248-264.

HAUGEN, Einar (1966). «Dialect, language, nation», *American Anthropologist* 68: 922-935.

HUALDE, José Ignacio (1995). «Euskal azentuen sailkapenez eta historiaz», in Ricardo Gómez & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *ASJU Gehigarriak 28: Euskal dialektologiako kongresua*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 189-208.

HUALDE, José Ignacio & ZUAZO, Koldo (2007). «The standardization of the Basque language», *Language Problems and Language Planning* 31 (2): 143-168.

HURCH, Bernhard (1988). «Phonetics and phonology. Phonology and phonetics», *Zeitschrift für phonetische Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 41 (3): 346-352.

JAUREGI, Oroitz (2007). *Euskararen silaba: egitura eta historia*. UPV/EHU. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Oroitz_Jauregi_TESA.pdf. [2021-01-29].

JAUREGI, Oroitz & EPELDE, Irantzu (2019). «Standard Basque», in Lenore Grenoble, Pia Lane & Unn Røyneland (arg.), *Linguistic Minorities in Europe Online*. Berlin: Mouton de Gruyter.

JOOS, Martin (1968). «The isolation of styles», in Joshua Aaron Fishman (arg.), *Readings in the Sociology of Language*. Haga: Mouton de Gruyter, 185-191.

LABOV, William (1972). «The isolation of contextual styles», *Sociolinguistic Patterns*. Filadelfia: University of Pennsylvania Press, 70-109.

LARRINAGA, Asier (1998). «Ahoskeraren araugintza komunikabideetan», *Euskera* 43 (2): 459-466.

LLISTERRI, Joaquim (1992). «Speaking styles in speech research», *ELNET/ESCA/SALT Workshop on Integrating Speech and Natural Language*. Dublin, uztailak 15-17, http://liceu.uab.es/~joaquim/publicacions/SpeakingStyles_92.pdf. [2021-01-29].

MILROY, James (1994). «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in Dieter Stein & Ingrid Tieken-Boon Van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600-1800*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

MILROY, James & MILROY, Lesley (1999 [1985]). *Authority in Language: Investigating Standard English*. Londres-New York: Routledge.

MITXELENA, Koldo (1968). «Ortografia», *Euskera* 13: 203-219, https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauek/Araua_0000.pdf. [2021-01-29].

——— (1972). «A Note on Old Labourdin Accentuation», *ASJU* 6: 110-120.

——— (1990 [1961]). «Fonética Histórica Vasca», *ASJU Gehigarriak* 4. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

MONTGOMERY, Martin (2008). «Language and situation: register», *Langage et société* 124 (2): 89-93, <https://www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2008-2-page-89.htm>. [2021-01-29].

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1994). «Ahoskera araupetzeaz II», *Euskera* 39 (2): 1.589-1.605.

——— (1998). «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera* 43 (2): 439-449.

——— (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.

——— (2016). «Standardisation of Basque: From grammar (1968) to pronunciation (1998)», *Sociolinguistica: International Yearbook of European Sociolinguistics* 30 (1): 125-143.

——— (2017). «The Standardisation of Pronunciation: Basque Today, between Maintenance and Variation», in Ingrid Tieken-Boon Van Ostade & Carol Percy (arg.), *Prescription and Tradition in Language. Establishing Standards across Time and Space*. Bristol: Multilingual Matters, 342-354.

——— (2019). «Ahoskera arautu eta i(ra)kas al daiteke?», *Eta ahoskera zer? jardunaldia*. Gasteiz (Artium), 2019ko otsailaren 14a.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, JAUREGI, Oroitz & EPELDE, Irantzu (2014). «Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania», *Lapurdum* 18: 75-95.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz & SALABERRIA, Jasone (2015). «Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du)», *Euskera* 60 (2): 499-531.

PEREZ, Elixabete & AZKARATE, Miren (2020). «Euskara estandarrak bernalarizazioaldian», in Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: UPV/EHU, 601-615.

POCH-OLIVÉ, Dolors (1998). «La estandarización de la pronunciación y la variabilidad lingüística», *Euskera* 43 (2): 391-398.

PURHOSEIN, Abbas (2016). «English pronunciation instruction: a literature review», *International Journal of Research in English Education* 1 (1): 1-6.

RISAN, Maiken (2014). «Fake it till you make it»-Attitudes towards L2 accents among prospective English teachers in Norway. Trondheim, Master Tesia Norvegiako Zientzia eta Teknologia Unibertsitatean (NTNU).

ROMERO, Joaquín (1996). «Articulatory blending of lingual gestures», *Journal of Phonetics* 24: 99-111.

SAPIR, Edward (1949 [1921]). *Language: an introduction to the study of speech*. New York: Harcourt, Brace and Company.

TXILLARDEGI (ALVAREZ, Jose Luis) (1984). *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.

URRETA, Irati (inprimategian). «Kontsonante ozen ondorengo txistukariaren ahoskera hizkera-maila arduragabe eta zainduan», *Lapurdum*.

VALVERDÚ, Francesc (1986). «Sobre el estándar oral catalán: el modelo de lengua en TV3», *Euskera* 31 (2): 317-326.

VENNEMANN, Theo (1988). *Preference laws for syllable structure*. Berlin: Mouton de Gruyter.

WOOLHISER, Curt (2011). «Border effects in European dialect continua: dialect divergence and convergence», in Bernd Kortmann & Johan Van Der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Berlin-Boston: Mouton de Gruyter, 501-523.

ZUAZO, Koldo (2005). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.